



DIRU ITURRIAK

Kargadore hauen salmenta norbanakoaren aparkaleku partzelan kargadore honen instalazioaren ezarpena nahi duen pertsonarentzat bideratuta dago.

Produktu hauen erosketa epeka zein eskura ordaindu ahal izango da: bezeroak nahiago duen ordainketa-sistema aukera dezake. Honekin lotuta, sistema baten bitartez erosteak abantaila batzuk ekarriko dizkio erosleari. Produktu hau erosteko orduan, epeka ordaintzeagatik deskontu bat eskainiko da. Gurekin lan egiten duen konpainiak, Teslak, %10eko beherapen bat eskainiko die erosleei haien autoen salmentan, gure kargadore baten salmenta egin eta gero. Aldi berean, hiru kargadore erosiz gero, bonu bat egingo zaio bezeroari: kargadore hauen hurrengo aseguruua erabat doakoa izango da.

Salmentarekin batera, gure enpresak produktua guztiz estaltzen duen aseguruua eskainiko du. Saldutako kargadore elektriko guztiek bi urteko bermea izango dute, eta urte horiek pasa eta gero aseguruua berritzeko aukera egongo da. Aseguruak hurrengo baldintzak izango ditu:

- Kargadorearen apurketa arazo-elektrikoren baten ondorio bada, enpresak hartuko du ardura guztia.
- Kargadorea erabilera desegoki baten ondorioz apurtzen bada, aseguruak ez du horren erreparazioa ordainduko.

Aldi berean, gure enpresak beste enpresa batzuekin kolaboratuko du: Iberdrolarekin. Honek, beharrezkoa dugun elektrizitatea eskeiniko digu kotxeak kargatuta izan dezaten.

Saldutako produktu nagusiaarekin batera, energia potentzia desberdina eskainiko duten produktu anitzak salduko ditugu, hau da, produktu berak hainbat karga potentzia desberdin eskainiko ditu, eta bezeroak aukeratu ahal izango du nahiago duena. Aniztasun honek erosleen premia egokitzea ahalbidetuko du.

Salmenten bitartez bildutako dirua, enpresaren inbertsioen eta gastuen artean zein langileen soldaten artean egongo da banatuta. Lortutako mozkinen %100etik, %50a enpresaren inbertsioetarako bideratuta egongo da, eta aldiz, beste %50a bazkide kapitalistentzat izango da.

Kargadore elektriko hauen prezioak ezartzeko hurrengo irizpideetan oinarritu gara:

- Konbustio kotxeen baterien prezioa jakin.
- Kotxe elektrikoaren baterien prezioa jakin.
- Gure kostuen arabera, hala nola, elektrizitatea, beste enpresen mantenimendua...
- Gure diru sarreren arabera.

Plakak egiten ditugunean, gu izango gara saltzaileak. Horrela, gure produktua erosi nahi duten pertsona guztiak, baita enpresak ere, gu izango gara erosketaren eta garraioaren arduradunak.